



Ola-beurrigoena (-a) etxebizitza

Aldacrak: Urigoen

Ahozkoa: Uríon / Uríongoikue / Uríonbekue



43° 10' 28"

2° 34' 2"

Gerediaga Elkartea / T. Angoitia

"... la casería llamada Olave-urigüen... en termino de la anteiglesia de Berriz, es de dos viviendas compuestas la una en el piso bajo de cocina, tres cuartos y cuadra, y en el superior de un cuarto, dos camarotes y pajar; la otra en el bajo de cocina y cuadra, y arriba de una sala, dos cuartos, camarote y pajar, ocupando una planta solar de trescientos treinta y cinco estados... al frente de la casa existen dos arnagas o accesorias y un horno con los zaguanes y antusanos..."

DJE 5/174 or. (1886)

Bizitza biko baserri honen aipua Bizkaiko su-erroldean agertzen zaizkigu: *Urigen* (1704) eta *Urigen* (1745). XVIII. mende amaieran *Ola-be Urigoen* (1798) BAHP, A98/8. or.) aurkitzen dugu, nahiz eta XIX. mendeko errolda bitan *Urigoen* agertu (1825eko polizia-errolda eta Berrizko Udalak egindako eraikinen zerrenda). Nonbait *Olabe* galdu eta izenaren bigarren osagaia nagusitzen da aipu gehienetan: *Urigüen* (1865) DJE, 1/ 152. or.) eta *Urigüen* (1905, BUA, 40. or.). Auzotarren artean *Uríon* moduan ezagutzen da, eta bertakoek baserri-etxeak dituen bizitza biak ere bereizten dituzte: ezkerrekoa *Uríongoikue* eta eskumakoa *Uríonbekue*.

Sasoi desberdinetako aldeekin osatutako erakina da. XVI. mendeko etxe baten parte inportanteak kontserbatzen ditu oraindik, egoki integratu direnak XVIII. mende akaberan edo

XIX. enean jasotako baserrian. Bai ostean, bai fatxada nagusiko eskuma aldean, ondo baino hobeto nabarmentzen dira Errenazimenduan erabili zen silarri bereziekin egindako hormak, edo molduradun hegiak dauzkaten leihoak. Beste aldea mende batzuk beranduagokoa da. Alde hau orduko etxe onen eran egin zen. Fatxada antolatze modua erabat simetrikoa da, ardatz moduan atarteko arku zabala hartuta. Sarri gertatu moduan, gainean balkoi txikia dauka, eta ganbara aldean zabalagoa, burdinazko eta zurezko kareldunak besteak beste. Aldamenetan, leihoak, eta txikienak, ganbarakoak, hau ere ohiturari jarraituz. Alde berriago honetan harlandua kantale eta bao guztien ertzak egiteko utzi zuten, harlangaitza hormetan erabiltzen zuten bitartean, etxe zaharragoan ez bezala. Bi isuritako teilatuak batzen ditu bi aldeak.

toponimia

Sarritan esan dugun legez Bizkaian oso arrunta da etxe izenetan lehenengo osagaia auzoaren izena izatea, hemen bezalaxe, eta bigarrena etxearena berarekin, Uriogena kasu honetan.